


# BAGABILTZA

LHK-CRLko euskara-planaren buletina. 7. zk. 2022ko urria.

## BIGARREN EUSKARA-SAIOA

Mari  
Jose  
Mojón



Irailaren 28an ospatu dugu 2022ko bigarren Euskara Saioa Lan Harremanen Kontseiluan, Bilboko egoitzan.

Saioaren lehen zatian udako postalen ekimenari heldu diogu, eta lankide bakoitzak aukera izan du bidalitako postalaz edo postalez aritzeko; une atsegina izan da. Paint programaren bidez, jolasean aritu gara gero, marrazkien atzean ezkututzen ziren kontzeptuak asmatzen. Eta ekainean egindako NOR DABIL ZUZEN? lehiaketaren sari-banaketak itxi du sai-

oa. Berriz ere azpimarratu behar da langileen parte hartzea, eta sortu den giro ona.

Zeharka bada ere, EUSKARALDIA ere presente egon da, izan ere, ate-joka dator 3. edizioa!



LHKn beti izan da pozgarria enpresaburuen eta langileen ordezkariak elkar ulertzen dutela ikustea, eta inolako interesik ez badugu ere, pozgarria da.

Baina niretzat, une honetan, poz hau berezia da. Gerra hitza entzutera ohituta gaudelako, oldarkortasuna elikatzen ari delako eta badirudi giza bizitzak balioa galtzen duela, gazteen itzaropenak eta herrietako ametsak desagertzen diren bitartean. Orain, nire lanean, hurbiletik ikusi ahal izateak elkar ulertzea posible dela borondatea bada, nahiz eta hasieran jarre- oso urrun egon, erakusten dit gizarte osoak ez duela galdu zuhurtzia eta betiko pozak zentzu handiagoa duela. Eskerrik asko erakus-teagatik.



## ANIMATU ETA EMAN IZENA

# EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

